

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. EUROPAR BATASUNA, USTELKERIA
2. NAFARROAKO ERREGIMENA: USTELKERIA NORTASUN EZAUGARRITZAT
3. XAHUBIDEAREN ERREINUA
4. OPOR FISKALETAN, BARRA LIBREA ALA ERANTZUKIZUNARI AURRE EGITEA?
5. OXFAMEN "ELITEENTZAT GOBERNATZEN" TXOSTENAREN LABURPENA
6. APLIKATZEN DIREN POLITIKEK POBREZIARI ETA BAZTERTZE SOZIALARI BURUZKO EBIDENTZIAK SAIHESTEN DITUZTE
7. PROPOSAMENA: TXIROTZE ETA PREKARIETATE POLITIKEN AURKA EUSKAL HERRIA MARTXAN

1. EUROPAR BATASUNA, USTELKERIA

Pasadan astean, Europar komisioak Europar Batasuneko (EB) ustelkeriaren aurkako lehen txostena aurkeztu zuen. Hiru dira txostenaren atalak:

- Atal nagusia, ustelkeriaren hedapena eta estatuek honi aurre egiteko hartutako neurrien joera
- bigarren atala 28 kapituluk osatzen dute, kapitulu bana estatu bakoitzaren egoerari dedikatua
- hirugarrenez, herritarrek batetik eta enpresek bestetik, ustelkeriaren inguruan duten iritziaren Eurobarometroak eginiko bi inkestek emaitzak.

Txostenaren ondorioak argiak eta erabatekoak dira; ustelkeria errealitate nabarmena da EBeko estatu guztietan, batasuneko ekonomiari 120.000 milioi euro suposatzen dizkio urtero eta nahiz eta estatuek hau ekiditzeko neurriak hartu izana defendatu, hauek ez nahikoak dira, ez baitira eraginkorrak izan.

Eta horrela zehazten dute bai estatu bakoitzari egindako analisisiek zein aipatutako bi inkestek. Biztanleriaren hiru laurdenak (%76) ustelkeria oso arrunta dela sute du, eta erdiak baino gehiagok (%56) azken hiru urteetan bere estatuan ustelkeriak gora egin duelakoan dago (Espainiar estatuan %77ak baietz erantzun zuen). Hamabitik batek (%8) azken urtean ustelkeri kasu bat bizi izana esaten du.

Espainiar Estatuaren txarren baloratutako estatua izan da, Grezia eta Italiarekin bat. Txostenak zehatz aipatu gabe, kasu ezberdinez dihardu, Barcenaren asuntua, Andaluziako enplegu erregulazio txostenez, Kataluniako IATen inguruko eztabaidaz, alderdien finantziarioari dagokionez, talde politikoei aurrezki kutxek emandako mailegu onuragarriez besteak beste.

Ustelkeri eremu eta sektoreei dagokionez, arriskua eskualde eta toki mailan, kontrola gutxiago dagoelako, eta batez ere toki garapen eta kontratazio publikoan, eraikuntza eta osasun sektoreak jarraituta handiagoa omen da. Enpresariei egindako inkestek, %83ak ere horrela onartzen dute, ustelkeria kontratuen esleipenean guztiz hedatua dagoela.

Jarduteko modu ez egokiak ezagutzen ditugu dagoeneko: lizitazio batzuetan enpresa zehatz batentzat eginiko berezitasuna, eskaintza publikoak saihesteko beharrezana kontratu txikietan banatzea horrela adjudikazioa nahierara eginez, bukatugabeko auditoretzak, arrazoirik gabeko esleipen prezioen igotzea, etab.

Emaitzak aztertuta, Komisioak estatuei kontrol neurriak indartzea eta ondoriozko zigorrak gogortzeko gomendiatzen die, kontratazio publikoko kasuetan batez ere.

Egia esan, ondorioek ez gaituzte ustekabeen harrapatu. Dakiguna baieztatzeaz gain, benetako egoera txostenak isladatzen duena baino askoz larriagoa delakoan gaude.

2.- NAFARROAKO ERREGIMENA: USTELKERIA NORTASUN EZAUGARRITZAT

Azken egunetan Nafarroan bizi dugun ustelkeria gertaeraren inguruan tamalgarria da, gertaera beraz gain, Nafarroako Erregimena osatzen dutenentzako ustelkeria zerbait normala dela egiaztatzen dela da.

Baieztapen honekin ez dugu ezer berririk esaten. Denok dakigu, edo gutxienez susmo hori dugu, ustelkeria, iluntasuna, batzuen alde aritzea, eta abar gure lurralde honetan denbora luzeegiz gobernatu digutenen politikaren oinarria dela.

Oraingoan Nafarroako Gobernuako Kontseilari eta Presidenteorde den Lourdes Goikoetxearen txanda izan da, Barcinaren bigarrena dena.

“Goikoetxea auzia” orain Ogasuneko zuzendari ohia den Idoia Nieves Nafarroako Parlamentuan bere dimisioa azaltzeko agertu zenean hasi zen. Agerraldi horretan bere kargua uzteko arrazoi nagusiak zehaztu zituen:

- BEZa bueltatzeko atzerapena eta honen ondorioak. Alvaro Miranda Ekonomia eta Ogasun Kontseilari zenetik BEZa enpresei bueltatzeko epea atzeratu egin du Nafarroako Gobernuak (epe hori bete gabe), eta modu honetan urte bukaeran Nafarroako kontuetan zegoen BEZarekin itzuli beharreko dirua, kontuak itxuratuz defizit muga betetzeko. Kontabilitatean tranpa egiteko modu bat da hau, enpresa eta gizarte guztiarentzat oso kaltegarria dena.
- Berak izan zuen aholkularitzako bezeroentzako eta zenbait zergadunentzako tratu berezia. Nafarroako Gobernuako Presidenteordeak maiz eskatzen zuen zenbait enpresa eta pertsonen tratu berezi bat emateko. Hala nola berak izandako aholkularitzako bezeroak ikuskatuak izango ziren edo ez jakitea, edo enpresa bat ikuskatzea galaraztea, edo ikuskatua izan zen enpresa baten zigor proposamena arintzeko eskatzea, bere bezeroa izandako bat “ongi” tratatzeko eskatzea (eta kasu honetan oraindik ere aholkularitzako bezeroekin bere bulego zaharrean biltzen zela erakutsiz)... Gobernutik Opuako Unibertsitateari edo Osasunari tratu berezi bat emateko eskatzen zen, besteak beste.
- Fiskalitate arloan helbururik ez jartzea. Ogasuneko Zuzendariak bere kargua uzteko beste arrazoietakoa bat fiskalitate arloan inolako plangintzarik ez izatea da, hau da, helbururik ez zuten erreforma fiskalekin propaganda egitea beste xederik ez izatea da.

Salaketa hauek jomugan jarri dituzte Lourdes Goikoetxea eta Nafarroako Gobernua bera. PSNk (Barcina Gobernura iristearen ardura duen partiduak) Ogasuneko zuzendari ohiak esandakoa egiaztatzen bada Barcinak dimititu beharko lukeela esan du, eta bestela zentsura mozioa

babestuko dutela hauteskundeak deitzeko.

Gobernuak honen aurrean hartutako jarrera, Barcina buru duela, Goikoetxea babestea eta PSNri zentsura mozioarekin betetzeko desafiatzea izan da.

Egoera honek Nafarroako “Erregimenak” bizi duen krisia erakusten du. Boterea dutenek ez dute Nafarroan ezer aldatzerik nahi. Pertsona jakin batzuk kentzea beharrezkoa bada bai, baina denak berdin jarraitzeko beti ere. Honen erakusle dira Erregimeneko bi sindikatuek hartutako jarrera: UGTk “honen inguruan ez duela iritzirik” esan du, eta CCOOek “oreka instituzionalaren alde egin behar dela” dio.

Erregimena osatzen dutenek duten interesa denak berdin jarraitzearena da. Eta hori lortzeko behar dena egiten dute. PSNk CANen desagertzea ikertzeko Batzordea bitan baztertu zuenean bezala. Edo CEN, UGT eta CCOO erakundeek guztien adostasunez CAN auziagatik auziperatuta dagoen Alberto Pascual Lan Epaitegiko Presidente izendatu dutenean bezala.

Hau da Nafarroak bizi duen arriskueta bat. Beharrezkoa den aldaketa sozial eta politikoa ez da hauteskunde berri batzuekin etorriko (nahiz maiatzean edo 2015ean izan). Beharrezkoa den aldaketa ustelkeria politikekin hautsi eta nafar gizarteak behar dituen politikak egiten hasten denean etorriko da.

Horretarako ELAk beharrezkotzat jotzen du edozein ustelkeria kasuri aurre egitea, eta langileria guztiari Nafarroak behar duen biziberritze demokratikoa ekarriko duen salaketa eta mobilizazio sozialera batzeko deia egiten die.

3.- XAHUBIDEAREN ERREINUA

Pertsonen eta partidu politikoen ideologia hitzetan baino egiten diren ekintzetan erakusten da. Honen adibide da Nafarroan egin den batzuen

aldeko xahutze politika iluna. Ustelkeriarekin lotura duten gertaerak ematen diren bitartean, murrizketak egon dira beharrezkoak diren atal guztietan, hala nola osasunean, hezkuntzan, zerbitzu sozialetan, prestazioetan...

Nafarroa galbidera eraman duten obra eta ekintzen zerrenda izugarria da, eta azken urteetan egin diren hauetako askoren atzean "Nafarroa 2012 Plana" dago. Erregimenak erregimenarentzat eginiko plana da hau, Nafarroa gobernatzen duen botere zirkuluaren erakusle.

Nafarroa 2012 Plana UPNk eta PSNk pentsatu eta sinatu zuten 2008ko apirilean, eta ondoren eman zioten babesa eta honetara batu ziren CEN, UGT eta CCOO erakundeak. Plan honek aurreikusten zuen gauza bakarra 4.508,9 miloi euroko obrak egitea da.

ELAk hasieratik oso gaizki baloratu zuen Plan hau eta politika egiteko modu hau, UPNrentzat eta PSNrentzat propaganda egiteko modu oso garestia eta alferrikakoa suertatzen baita Nafarroarentzat. Urteak pasa ahala egiaztatu da obra erraldoi guzti hauek egoera okertzeko eta dirua modu ilunean gastatzeko bakarrik balio izan dutela, gizartearentzat, ekonomiarentzat eta ingurugiroarentzat kostu altua izanik. Eta baita gutxi batzuk aberasteko ere.

Xahubide honek bultzaturiko obretako batzuk hauek dira:

- Navarra Arena Pabiloia: 60 milioietako aurrekontua zuen hasieran, eta oraindik ere irekiera baimenik ez dauka eta ez da jakina inolako erabilerarik emango ote zaion.

Obra hau FCCren eta Obenasaren arteko enpresa arteko behin behineko baturak egin zuen, lanak beste enpresa batzuei azpikontratatu. Obra hau egin zuten langileak ez zituzten izan Nafarroako eraikuntza Hitzarmenak ezarritako gutxiengo baldintzak.

- Sanferminen Museoa: 24 milioi eurotako

aurrekontuarekin, Comptosen arabera 6,37 milioi euro gastatu dira egin ez den obra honetan.

Los Arcoseko Zirkuitua: 32,5 milioietako aurrekontua zuen, baina Comptosen arabera 52 milioi euro gastatu ziren eta urtez urte 3 milioietako galerak eman ditu, azkenean arlo pribatura alokatu da zirkuitua.

- Gendulaingo Plana: Aurreikusitako gastua 259 milioi baino gehiagokoa zen, eta babesturiko 15.000 etxebizitza egitea zen asmoa.

- Nafarroako Kanala: 505,7 milioietako gastua aurreikusi zen Kanala eta Kanalaren ureztatzean. Kanalaren azken zatiak 147,5 milioi eurotako aurrekontua zuen, baina itzaleko bidesariaren bidez ordainduko denez, hemendik 30 urtera 592 milioi euro kostako da.

- Nekazaritzako Elikagaien Hiria: Tuterako industriagune hau nekazaritzako elikagaien industria bertan ezartzeko pentsatu zen. Nafarroan eta erriberan existitzen ez industri politikaren adibidea da. Hasierako aurrekontua 79,6 milioietakoa zen, eta bertan ez da inongo nekazaritza elikagaien inongo industriarik finkatu.

- Pirinoetako Autobidea eta Bideko Autobidearen lotura: Hauek zenbat kostako diren jakin ezin den beste bi obra dira, itzalpeko bidesariaren bitartez ordaintzen ari baitira.

- Abiadura Handiko Trena eta Iruñerriko Plana: Nafarroako AHTaren kostua 4.000 milioi ingurukoa izateraino helduko litzatekeela aurreikusten da, eta honekin batera Etxabakoitzeko hirigintza Plana ere egin zuten, non trenaren geltoki berria eta beste 8.130 etxebizitza egin nahi zituzten, 130,1 milioietako aurrekontuarekin.

- Aireportuaren Hiria: 37,5 milioietako beste proiektu bat, zeinek aireportuaren bueltan inguru urbano bat eraikitzeke asmoa zuen.

Jakina da inork (ez plana sinatu zutenek ezta

babesa eman ziotenek ere) ez dutela beraiengan porrot egin duen plan honen ardurarik hartu. Ez dakigu zenbat diru gastatu den benetan, baina ez du aurreikusitakoarekin zerikusirik izanen, ez da obra hauen erabilpenaren inguruan ezer esaten (Los Arcoseko Zirkuitua, AHT, Gendulain...), ez dakigu zenbat diru kostatzen den hauek mantentzea, asko bukatuta daude baina erabilpenik gabe, martxan jartzeko dirurik ez dagoelako (Navarra Arena Pabilioia, Nafarroako Ospitaleko Larrialdien eraikina, Lekarotzeko Zentrua...).

Idea bat egiteko, plan honek biltzen zituen 4.508,9 milioi euroak 2014ko aurrekontu proiektuak baino 854,7 milioi euro gehiago dira, Osasun Departamentuaren aurrekontua halako 5 baino gehiago, Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua halako 8, gizarte politiketan gastatzen dena baino 16,7 aldiz gehiago, urtebeteko langabezia prestazioen gastu osoa 144,5 aldiz...

Begi bistakoa da politika eta ekintza hauek direla Nafarroan bizi dugun giza larrialdi egoerara eramán gaituztenak. Beraz hauek egiten dituztenak eta babesten dituztenak dira egoera honen arduradunak.

4.- OPOR FISKALETAN, BARRA LIBREA ALA ERANTZUKIZUNARI AURRE EGITEA?

Opor fiskalen auzian EAEko Foru-Aldundiek jokabide arduragabea izan dute. Hauek dira xehetasunik nabarmenenak:

- 2001ean Europako Batzordeak sei Erabaki hartu zituen, zeinen arabera ebazten zuen "opor fiskalak" (Araba, Bizkai eta Gipuzkoan ezarritako bina arau) bateraezinak zirela merkatu komunarekin, eta beharrezko guztia egitea galdegiten zuen, onura horiek jaso zituztenek legez kanpoko jo ziren laguntza horiek itzultzen zituzten.

- EAEko Aldundiek helegiteak sartu zituzten Batzordearen Erabaki haiek indargabetzeko eskatuz. Baina helegiteek ez zuten agindua etete indarrik, eta Batzordeak berriro gogoratu zuen laguntzak berreskuratzea derrigorrezkoa zela. Aldundiek hori ez egitea erabaki zuten. 2009ko irailean auzitegiek Aldundien helegiteak errefusatu zituzten. Ondoren sartutakoak ere bai, hain zuzen 2011ko uztailaren 28an.

- 2006ko abenduan Batzordeak Luxemburgoko Justizia Auzitegiaren epai bat lortu zuen, non esaten zen Aldundiek erabaki haiek ez zituztela bete, eta laguntzak ez zirela berreskuratu.

- 2006 eta 2010 bitartean Aldundiak europar erakundeei informazio erreala ezkututzen saiatu ziren: esaterako, esaten zuten laguntzak berreskuratuta zeudela, hau egia ez izanagatik ere. Europar erakundeek uste dute "zegokion informazioa ez zutela eman, edo emandakoan, atzerapenez izan zela, eta garrantzirik gabeko agiri asko bidali zirela (...) denbora eta indar asko eman dute berreskuratu beharreko zenbatekoak gutxitu nahian, sarri gehiegizko xehetasunak ematen zituztelarik, horrek atzerapenak eragin zituztelarik". Jokabide hau patronalarekin adostuta zegoen. Jose Maria Iruarizaga Bizkaiko Aldundiko Ogasun Diputatuak aitortu zuenez (El Correo, 2011ko iraila) gai honetan patronalak eskatutakoa egin dute.

- 2011ko apirilean, Aldundien jarrera ikusirik, Europako Batzordeak Luxemburgoko Auzitegiari eskatu zion ezar diezaiela haiei eguneko 25.817,4 euroren isuna, 2006ko epaia eman zenetik, harik eta laguntza guztiak berreskuratu arte. Hots, isuna ez da legez kanpoko laguntzak eman izanaren ondorio, enpresei laguntzak itzultzera derrigortzeko gertatu zen atzerapena eta adar jotzea medio baizik.

- Isun eskaera eman zenean ere, patronalak jarraitu zuen eskatzen ogasunek ez zitzatela laguntzak berreskuratu. 2011ko irailean Miguel Angel Lujua Confebaskeko presidentek esan zuen laguntzak itzultzea eskatzeak enpresak hondamendira eraman zitzakeela.

- 2011ko apirileko eskariak gero erabaki zuten azkenik Ogasunek laguntzak berreskuratzea. Europar Auzitegiko Abokatu Nagusiaren esanetan, laguntzen %86 prozedura horren ostean berreskuratu ziren, 2011ko iraila eta 2013ko urria bitartean. 2014ko urtarrilaren 23ko eskarian isuna eguneko 22.130,4 eurora jaisten du, 2.500 egun igaro zirelarik 2006ko epaia argitaratu eta 2013ko urriaren 15era arte (egun honetan burutu zen laguntzak berreskuratzekeo prozesua). Isuna guztira 55,7 milioi euro dira, eta honi kostuak gehitu behar zaizkio.

- Hiru Foru-Ogasunek opor fiskalen dirua 2013an berreskuratu zuten (2014ko otsailean izan zen Finantzen Euskal Kontseiluaren bilera ondoren iragarri zen iaz 33 milioi euro jaso zirela kontu honegatik: 10,8 milioi Araban; 7,7 Bizkaian, eta 14,5, Gipuzkoan).

- Auzitegiak behin betiko erabakia hilabete gutxiren buruan hartuko du. Badirudi isuna Auzitegiko abokatu nagusiak eskatutakoaren parekoa izango dela.

ELAk ez du onartzen gai honetan barra librea egoterik. Ogasunek eta patronalek elkar hartuta jokatu dute, gezurra esan dute eta ahal zuten informazio guztia ezkutatu dute. Beraz, ez gaude onartzeko prest honelako isun bat zergak ordaintzen ditugun guztion artean ordaintzea. Horregatik, ELAren jarrera hau izango da:

- Erabaki horiek hartu zituztenek eta patronalek ardura politikoa -oso larria- beren gain har dezatela exijitzen du.

- Isuna ezartzen denean demanda bat

sartuko du zigorra ekarri duten erabakien arduradun politikoei ardura beren gain har dezaten.

- Isuna ordaintzeko Sozietateen gaineko Zergan gehigarri berezi bat ezartzea exijitzen du.

5.- OXFAMEN “ELITEENTZAT GOBERNATZEN” TXOSTENAREN LABURPENA

Oxfamek berriki argitaratu duen “Eliteentzat gobernatzen” txostenak aditzera eman nahi du nola demokraziaren bahiketak bidegabeak diren aberastasunak eraten dituela eta hauek desberdintasun ekonomikoak iraunarazten dituztela. Hona hemen aipatutako txostenaren laburpen bat.

Esku gutxi batzuetan dagoen aberastasunaren kontzentrazioa gora doa, munduko familien %1 munduko aberastasunaren %46ren jabe da, eta populazioaren %10 planetako baliabideen %86ren jabe da; populazio pobreenaren %70k (3.000 milioi pertsona heldu) baliabideen %3 duen bitartean. Krisi ekonomiko eta finantzarioa izan arren, joerak gorantz jarraitzen du. Munduko populazioaren gehiengoak oparotasun honetatik kanpo geratzen da, soldatak BPGren portzentajearen geldirik baitaude. Austeritate politikak batez ere pertsona pobreei eragiten die, aberatsak aberasten dituzten bitartean. Desberdintasun hauetatik ez da herrialderik libratzen. G20ko herrialdeen artean garapen bidean dauden herrialdeak izan dira orain arte desberdintasun handienak izan dituztenak (Brasil, Txina, Errusia, Hegoafrika,...), baina orain desberdintasun hauek errenta altuko herrialdeetan hazten ari dira.

Desberdintasun hauek eliteen alde egiten den sistemaren manipulazioaren ondorio dira. Merkatuek ez dute berezko legeen arabera funtzionatzen, administrazio eta gobernuak ezarritako legeekin eraiki dira. Beraiek

kontrolatzen dituzte eta herritarrei kontu eman behar die. Aberatsek bakarrik irabazten badute, legeak beraien eta beraien interesen neurria eginak daudelako da. Egoera honetan, administrazio hauen gainean kontrolik ez bada ezartzen, are gehiago hondatzen dira eta aberats eta pobreen arteko ezberdintasuna iraunkorragoa izan daiteke, atzera ezineko egoera batera iritsi arte.

Austeritate politikak Europan izan duten eraginetako bat desberdintasunen tartea areagotzea izan da. Krisiaren aurretik Europako herrialde batzuetan diru sarreraren arteko ezberdintasuna gorantz zihoan. Finantza merkatuek presio handia egin dute austeritate neurriak martxan jartzeko, zerga erregresiboak eta gastu sozialean murrizketak (hezkuntzan, osasunean eta babes sozialean). Langileen eskubideak ahultzaren ere saiatu dira. Austeritate neurri guzti hauek desberdintasunei aurre egiteko mekanismoen aurka egitea izan dute helburu. Desberdintasun hauek sufritzen dituztenak pobreenak dira, nahiz eta inongo ardurarik ez izan. Guzti hau aurrera eraman dute aurkako mobilizazio sozialen gaintik pasatuz. Eta oraindik ere politika berdinekin jarraitzen dute, nahiz eta orain FMIk, austeritatearen defendatzaile sutsuenak, neurri gogor hauek ez dutela espero zuten hazkunderik eta susperraldi ekonomikorik ekartzen, eta hazkunde eta berdintasun aukerak okerrera egin dutela onartu du.

Pribilegioak transmititzen dituzten mekanismoak ere badaude, zeinak desberdintasunak iraunarazten dituzten, eliteentzat onura fiskalak adibide garbia dira. Herrialde askok gizarteko sektore aberatsentzat zerga tipo baxuagoa dute, eta hauekin batera legedian aldaketak egiten dituzte, esaterako merkatuen desregulazioa edo finantza merkatuei ematen dieten laguntza. Hauek dira diru sarrera altuenak gora egitearen eragileak. Hau da, aberatsenek aberastasun ekonomikoaren

zahirik handiena eraman dutela eta gainera zerga gutxiago ordaindu dutela hauengatik.

Gastu publikoaren inguruan hartzen diren erabakiak ere pribilegioen transmisoreak dira. Azken urteetako lotsagarriena finantza sektorearen erreskatea izan da. Finantza sektoreak ekonomia osoak bahitu ditu, sektore hau jausten uzteko handiegia denaren mehatxupean. Milioika euro bideratu dira erreskaterako diru laguntza edo mailegu modura, herrialdearen arabera, baina errealtatea jakina da, inoiz ez dute itzuliko. FMIko ekonomista batek ere estatu golpe isil bezala definitu du.

Desberdintasun hauek iraunarazteko eta aberastasuna gutxi batzuen eskuetan metatzen jarraitzeko beste adibide batzuk ere badira. Botere gehien duten interes taldeek kalitatezko zerbitzu publikoen sorreraren edo osasun zerbitzu unibertsalen aurka egiten dute, politika hauek diru sarrera altuen eta aberastasunaren kontzentrazioaren aurkako mehatxutzat hartzen baitira.

Aukera berdintasuna gizarte moderno eta baneratzailen oinarritzko ezaugarria da. Diru sarreraren desberdintasunaren eta aukera berdintasunaren artean korrelazio zuzena dago. Seme alabek bizitzan zehar izango dituzten aukerak familiaren egoera sozioekonomikoaren menpe daude ein handi batean. Aukerak gutxi batzuen eskuetan metatzeak ere desberdintasunak iraunarazten ditu. Talde konkretu batek bere gain hartzen du baliabideen kontrola bere onurarako eta baliabide hauek sortutako onurak bermatuta izaten saiatzen da. Baliabide hauek gastu publikoa, kalitatezko hezkuntzara sarbidea edo hobekien ordaindutako enpleguak dira.

Kapitala eta lanaren arteko botere erlazioan ere aldaketa izan da. 1989 eta 2005 artean sindikalizazio tasa jaitsi egin zen. Datu honek sindikalizazioa eta diru sarreraren desberdintasunaren arteko korrelazio negatiboa

azaleratzen du. Diru sarreren desberdintasunaren areagotzeak generoan oinarrituriko desberdintasunari ere eragiten dio. Desberdintasunak areagotu egiten dira ekitate ekonomiko gutxiko herrialdeetan. Nahiz eta diru laguntzen desberdintasunaren aurkako borroka ez duen genero desberdintasuna deuseztatuko, erlazio bat badago ekonomikoki berdina den gizartearen eta herritarren arteko botere erlazio berdina goen artean. Berdintasun handiagoko gizarteetan posible da emakumeak ardura postuetan egongo diren egoera bat sortzea, eta horrela administrazioak eta legeak genero berdintasunean aurrera egiteko lan egiten dutela bermatzea.

Desberdintasun hauei aurre egiteko garaia da. Oxfamek ondorengo gomendioak egiten ditu, eta ELA ados dago gomendio hauekin:

- Aberastasunaren eta diru sarreren gaineko fiskalitate progresiboa.
- Zergei ihes egiteko paradisu fiskalak ezabatzea.
- Merkatuen erregulazioa.
- Banku-sekretuaren eta zerga iruzurraren aurkako neurriak hartzea.
- Populazio aberatsenak prozesu politikoetan eragiteko duen ahalmenari fretoa jartzea.
- Zerga bilketa herritarrei hezkuntza, osasun eta babes sozial unibertsalak emateko erabiltzea.
- Gutxiengo diru sarrerak eta langileen eskubideak sendotzea.
- Enpresek soldata duinak eskaintzea bere langileei.
- Emakumeen eskubide eta aukera berdintasunari oztupoak ezabatzea.

6.- APLIKATZEN DIREN POLITIKEK POBREZIARI ETA BAZTERTZE SOZIALARI BURUZKO EBIDENTZIAK SAIHESTEN DITUZTE

Europako Batzordearen azken txostena aintzat hartuko balute, EBko gobernuetan eta Batzordean bertan dimisioak edota kargutik kentzeak erruz gertatuko liriteke, eta ezartzen diren politikak erabat aldatzekotan leudeke. Alabaina, ez dirudi horrelako ezer gertatuko denik. Kasu honetan ere agerian geratu da agintariak ebidentzia saihestu egiten dutela, eta areago, hala jokatzeko dutenean badakitela beren politikak herritar gehienei eragiten dizkieten kalte handiak.

Izan ere, Txostenak adierazten duenez,

- 2008 eta 2012 bitartean pobrezia eta baztertze soziala pairatzeko arriskuan dagoen pertsonen kopurua Europar Batasunean 7,4 milioi gehitu zen, ia %25era iritsi delarik (125 milioi pertsona).
- Pobrezia arrisku handiena duten taldeetan emakume portzentaje handiagoa da; taldeok oso lotuta daude jardura ezarekin eta zaintza ardurekin. Honek epe luzeko ondorioak ditu etorkizuneko eskubideetan.
- Lan egiteko adinean daudenen artean (18-64 urte) pobrezia eta baztertze soziala asko hazi da (6 puntutik gora) Europar Batasuneko estatuetakoko bi herenetan. Lan egiteko adinean dauden biztanlearen %25. Pobrezia daramaten bi faktore nagusiak dira lan merkatutik kanpo egotea, eta lan eginda ere, diru-sarrera eskasegia izatea (langile pobreak). Azken urteetan bi kasuok gehitu egin dira, langabezia hazi delako, enpleguen kalitatea soldatei dagokienez okertu delako, eta lan kantitatea murriztu delako (lanaldi partzialeko eta aldi baterako enplegua gero eta hedatuago dago).
- Lan egiteko adinean daudenen

pobreziaren arazoa krisi aurreko hazkunde ekonomiko aldiaren erantzukizuna; horregatik, pobrezia-tasak ez ziren orduan asko jaitsi. Horren zergati nagusiak bi ziren, sortutako enpleguak sarri pertsonarik baztertuengana ez zirela iristen, eta enplegu horiek bizimodu duina izateko aukerarik ez zutelako ematen. Hau lotuta dago aberatsen eta pobreen arteko desberdintasun gero eta handiagoarekin, baita langileen artean dauden diru-sarrera eta lan-baldintza anitzekin ere.

- Langile pobreen portzentajea hazi egin da herrialde gehienetan, Alemanian barne. Italian eta espainiar Estatuan gertatu den hazkunde handiak, berriz, estatuok %12tik gorako tasa batean jarri ditu, Europar Batasuneko batez bestekoa %10etik behera dagoelarik.
- Zein politika ezarri beharko litzatke pobrezia murrizteko eta biztanle txiroek enplegu egokia, hots, duina, aurki dezaten? Txostenak dioenez, estaldura zabala emango luketen langabezia-prestazioekin, soldataren ordezkapen-tasa handia dutela, pobrezia tasak txikiagoak izan ohi dira, eta gainera, prestazio hauek ez dute eragozten berriz enplegua topatzeko aukera (areago, erraztu egiten dute); pobreziatik irteteko bide hobeak eskatzen dituzte.

Txosten honen ondorioek zalantza jartzen dute indarrean dagoen politika; beronen oinarriak dira lanaren prekarietatea eta "enplegua bilatzeko pizgarri" gisa gizarte-prestazioak murriztea. ELAK agintariei galdegiten die Europako Batzordeak berak ere frogatuzat eman duenaren arabera joka dezatela.

7.- PROPOSAMENA: TXIROTZE ETA PREKARIETATE POLITIKEN AURKA EUSKAL HERRIA MARTXAN

Gaur prekarietatea, pobrezia, ahulezia, zalantza, eskubide murriztuak, eskubide ukatuak, aldi

baterako enplegua, behartutako migrazioak... errealitate dira. Egoera hauek guztiak politika antisozialen ondorio dira, biztanle gehienak txirotzea dakartenak, eta alderantziz, gutxiengo bat aberastea eragiten dutenak.

Sistema ekonomiko bidegabe honek ezinbesteko osagai ditu oinarrian esplotazioa baita, eta gizarte-sistema bat non desberdintasun soziala gero eta handiagoa den. Talde baten ongizatea ondasunen banaketa desberdinean, enplegua okertu eta suntsitzean, kolektibo jakin batzuri osasun arreta ukatzean, unibertsitate gero eta gutxiago duten zerbitzu publikoen pribatizazioan, jendea argirik eta berogailurik gabe uzten duten energia-politikan, etxebizitza izateko aukerarik gabe geratzen diren pertsonetan, era guztietako prestazio sozialak murriztu eta gutxitzean oinarritzen da. Esplotazioa eta desberdintasuna, gainera gehienetan, emakume aurpegiarekin.

Datuak oso argiak dira:

- Hego Euskal Herriko langabezia-tasa %17tik gora dago, hots, Europar Batasuneko batez besteko maila 6 puntutan gainditzen du.
- Lanik gabe dagoen pertsonen ia erdiak ez du langabezia-prestazio bat ere jasotzen. Langabeen kopurua etengabe ari da hazten.
- Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak prestazio sozialak murriztu dituzte, zenbatekoari eta hauek jasotzeko epeari dagokionez, eta hainbat kolektibori babesak kendu diote.
- EAEko pobrezia maila azken 25 urteetako larriena da. Pobreziari eta Gizarte-Desberdintasunei buruzko Inkestak adierazten du pobrezian jausteko arriskuan (oinarrizko beharrezko asetzeko diru-sarrera aski ez izatea) bizi diren pertsonak 157.000tik gora direla (biztanleen %7,3). Kolektibo hau EAEn 2008 eta 2012 bitartean %77,9 hazi da. Dagoeneko 100.000tik gora lagun bizi da elikatzeko arazo

larriak dauden etxeetan; nabarmentzen da euretako 46.000 gosea pasa den etxeetan bizi direla, hots, 2008an baino %116,8 gehiago.

- Nafarroan 50.000 pertsonak pairatzen du pobrezia larria, biztanleen %8ak; hauek hileko 454 euro ere ez dute bizitzeko.

- Caritas eta Elikagai Bankuei luzatutako eskariak %40 gehitu dira (35.000tik gora familiak behar du zerbitzu hau).

- Osasungintzako murrizketak (berrordainketa kasu) zigor gehigarria dira diru-sarrera urriak dituztenentzat, eta migranteei osasun arreta ukatzen ari zaie.

- Etxebizitza izateko eskubidea ez da aintzat hartzen (egiten diren politikak negoziario lehenesten diote eskubideei, eta etxegabetzeek ere badiraute).

- Txiroitze dinamika honek emakumei are gogorrago erasaten die: euren langabezia tasa handiagoa da, enplegu prekarioak dituzte, bereziki babes txarreko sektoreetan (etxe-langileak, etab.), eta prestazio sozial urriagoak jasotzen dituzte. Honek agerian uzten du gizarte-sistema honek biztanleen erdia desberdintasun goera larriagoa jasanaraztera zigortzen duela.

Etorkizuna iluna da oson nahiz eta batzuek kontratakoa esan. Pobreziaren kopuruak, ziurrenik, areago gehituko dira, besteak beste enpleguaren prekaritate itzela medio. Gero eta jende gehiago da pobrea lana eginagatik ere.

1. Egoera hau ikusirik, Gunea osatzen dugun erakunde sindikal eta sozialok Duintasunaren aldeko Kanpaina bat egitea erabaki dugu; erreibindikazioa eta mobilizazioa direla medio, martxoaren 3an goi-bilera ekonomikoa dela eta Bilbon manifestazio nazional bat egingo dugu, eta Otsaila eta Martxoan Euskal Herrian zehar, botere publikoei politikak erabat alda ditzaten exijituko diegu, proposamen zehatzekin: Lanbidearteko

Gutxieneko Soldataren (LAGS) igoera handia, enplegua izanda ere inor ez dadin pobrezian egon.

2. Langabezia prestazio duina, norbaitek enplegurik ez duen bitartean jasoko dena.

3. Diru-sarrerak bermatzeko Errenta eta Gizarteratzeko Errenta (oinarrizko errenta) egungo LAGS gaineratik kokatzea. Halaber, pertsona batetik gorako bizikidetzak-unitateei aplikatzen zaizkien eskalak gehitzea.

4. Diru-sarrerak bermatzeko sistema berri bat ezartzea egungoaren orde; beharrezkoa da eskubide soziala izatea. Bizimodu duina izateko eskubidea bermatzea ezinbestekoa da.

5. Diru-sarrerak bermatzeko Errenta eta Gizarteratzeko Errenta mantenduko direla ziurtatzea, baliabide ekonomiko gabezia dagoen artean.

6. Murrizte politikaren ondorioz prestazio sozialik gabe utzi dituzten kolektibo guztiei prestazioak jasotzeko eskubidea aitortzea.

7. Prestazio sozialak kudeatzerakoan aplikatzen ari diren irizpide murriztaileak ezabatzea.

8. Aurrekontua gehitzea, hartara zerbitzu publiko (osasungintza, enplegua, gizarte-arreta) unibertsal eta kalitatezkoak izateko bitartekoak (pertsonal, material eta teknikoak) eskura egon daitezen.

9. Pertsona orori bermatzea osasun eta osasun-arreta izateko eskubidea, baita etxebizitza duina eta egokia ere. Halaber, bermatu egin behar da baliabide ekonomikorik gabe dagoelako inor ez geratzea argindar, gas edo ur zerbitzurik gabe.

10. Erakundeen konpromisoa tresna propioak lortzeko, harik eta babes sozialeko sistema bat izan arte, zeinak bermatuko duen

pertsona orok behar besteko bitarteko eta baliabide izango duela bizimodu duin, autonomo eta kalitatezkoa gozatzeko.

Parte hartzera animatzen zaituztegu, txirotzera eta prekarietatera eramaten gaituztelako, Euskal Herriak bere bidea!